

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 31a / 559. zenbakia



Bergarako trenak

Juanjo Olaizolak gai hori izango du izpide martitzenean Miguel Altunan

UNED: KURTSO IREKIERA EKITALDIA GAUR/5 • ANTZERKIA: 'EL FEELING ES ASÍ' GAUR GAZTETXEAN/12

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARTXIBOA

CITROËN C2 BERRIA

C2

Energiaz gainezka!



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga, 36. Bergara. Tel. 943 76 47 49 / 73

ATREBENTZIA EZ PADA / Ze pentsatzen jatzu homosexualak umiak adoptatzia?



JORGE MURGIENDO
28 urte



NAIARA LUARIZARISTI
15 urte




JOSE ANGEL MILLAN
36 urte



VICTORIA ERRASTI
44 urte



MARI KARMEN ALKORTA
53 urte



VALENTIN MOMOITIO
69 urte

Nik uste dot gauzak poliki-poliki normalizatzen doia-zela eta hemendik denbora batera ez dabela arazorik eukiko. Neri ondo pentsatzen jat bikote homosexualak umiak adoptatzia.

Neri ondo. Nahi baldin badabe, berdin-berdin zaindu ahal dabe umia. Heterosexualen eskubide berak euki biharko leukie horretan eta gaiñerako gauzetan be.


Ez dot uste neri ezer pentsau bihar jatenik. Oso gauza pertsonala dala uste dot. Gaiñera, rikikulua pentsatzen jat nork bere joera sexuala esaten ibilli biharrara, ezetarako.

Neri ondo pentsatzen jat. Uste dot bikote heterosexualak dituzten eskubide berak euki biharko leukie-la. Nik uste dot mundu guztiari emon bihar jakola aukeria.

Neri ondo pentsatzen jat homosexualak umiak adoptatzia. Kontua da bihar dan moduko pertsona izatia, eta bihar dan modukuak baldin badie, zergaittik ez dabe ume bat hartuko!

Emakumezkuen bikotiek adoptatzia ondo ikusten dot, baiña gizonezkuek ez. Diferente ikusten dot. Ama baten figura garrantzitsua dala pentsatzen jat. Ama da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK HUSTEA BAKARRIK EZ Irakurle batek zera adierazi digu: Irizar kalean diren edukiontzien inguruan zabor piloa izaten dela. Edukiontzia husteaz arduratzen diren langileek ez dute oso txukun lagatzen edukiontzien atzealdea, eta zabor dezentegoten da bertan. Edukiontzia husteaz gain, ingurua behar den moduan lagatzea langileen ardura izan beharko litzateke. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 7

KIROLA / 11

KULTURA / 12

Bergarako trenak

Hori gai hartuta hitzaldia egingo du Juanjo Olaizola martitzenean, 19:30ean, Migel Altunan.

Futbolari gaztetxoak

BKEko infantil mailako taldeak partidu garrantzitsua izango du domekan Anaitasunaren aurka.

Pello Zabalen hitzaldia

Tenporen eta isobara mapen gaineko hitzaldia egingo du eguenean, 19:30ean, udaletxean.

ASTEKO DATUA

400

IKASLE ERRETIRATUEN IDAZLAN LEHIAKETAN


Kultur Hamabostaldiaren barruan, erretiratuek antolatutako idazlan lehiaketan 400 ikasle hartu dute parte. Belaunaldien arteko harremanak jorratu dituzte euren idazlanetan.

BESTEKE SANA

“Argi dago domekako garaipena dela behar genuena. Garaipen honek bultzatu egiten gaitu eta garrantzitsua da guretzat. Orain horri eutsi behar diogu eta datozen partiduetan garaipena bilatu. AGUSTIN ARANZABAL / Realeko jokalaria Deia/03-10-27

“Zenbaitek ez dute uste euskararen aldeko lanean saiatu beharra dagoenik. Aurreko batean ere galdetu zidaten: ‘Hemen denok euskaraz egiten dugu, zein da zure lana?’. Euskara Zestoan salbu dagoela uste dute. NORA PALMITANO / Zestoako Hizkuntza Normalkuntzarako teknikaria Argia/03-10-02

BERAIEK DIÑO E / Unai Lopez



Sapientia melior auro

Jakinduria urrea baino hobea dela dioen Deustuko unibertsitateko lelo hori, On Jose Maria Arizmendiari Arrasateko esperientzia kooperatiboaren sustatzaile nagusiaren “Jakintzak askatuko zaitu” edo “Ezagutzaren gizarteratzeak boterearen demokratizazioa lortuko du” bezalakoetan oinarrituriko filosofiarekin bat dator.

Unibertsitatea ezagutza iturritzat harturik, herri-eragile honek badu kokatzen den herrian “urra baino hobea” den beste oihartzun bat ere: Herriaren suspertze ekonomiko kulturala.

Europako edozein hiri unibertsitariotan, ikasle biztanleriaren hazkundeak urteetan eragin dituen zerbitzu eskaintza, kultura ekintza edo egitura berrien beharren oparotasuna bertatik bertara ikus daitezke; baita hain urrun joan gabe, beste neurri xumeago batean, inguruko Arrasate, Oñati edo Eskoriatza bezalako herri unibertsitatedunetan ere.

Gogoeta eginaz, UNED-aren urteetako presentzia ahaztu gabe, gurean ere adibidez Mondragon Unibertsitateko fakultate bat edukitzeak eragingo litzuzkeen onurak ilaran azkar jar daitezke: Biztanle gazte gehiago, zinera edo kontzertu batera joateko (Auditorium-a) edo herriko dendetarako bezero gehiago (Bedelkarren nahia); kirol-gune berriaren erabilpena areagotu; tabernak/jatetxeak betetzeko aukera gehiago (ostalaritzaren kezka); etxebizitza beharra...

Kezka bi; errepide berri horiek, edo tranbiaren proiektuak, herritik jendea inguruetara eramateko eta herria errez zeharkatzeko bakarrik al dira? Azalduko irudikapen hori ezinezkoa al litzateke gurean?

Datu bat; XVIII-XIX. mendeetako “Vergara” hark, European aitzindari izan zen ezagutza iturri hori eduki zuen. Pentsa gaur oraindik haren ospe eta ondareak nolakoak diren.

“Gurean ere MUKo fakultate bat edukitzeak eragingo litzuzkeen onurak ilaran azkar jar daitezke”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziabar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 31**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 1**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- DOMEKA, 2**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 3**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 4**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 5**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- EGUENA, 6**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (banda)..... 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRIAK**
Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kiroldegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:
11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak:
17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elorregi
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1930EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1930ean jaiotako bazkaria azaroaren 9an Zumelaga jatetxean. Aurretik meza izango da San Pedron, 12:30ean. Izenematea: 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

1951EAN JAIOTAKOEN AFARIA
1951koen afaria azaroaren 15ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (0091 1080 94).

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotako afaria azaroaren 22an Tartufon. Izenematea: 943 76 35 51.

1981EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1981ean jaiotako bazkaria azaroaren 22an. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1300 9006 9776).

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1934koen bazkaria azaroaren 29an Torrekua jatetxean. Izenematea Torrekua jatetxean (aurrez 12 euro).

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944koen afaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 23 70 (Sanchez) edo 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947koen afaria azaroaren 29an Tartufon. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan (0091 0990 19).

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEKOENDAKO EKITALDIK BIHAR ETA ETZI
Txapligu taldekoek (9-11 urte) detektibe jolasa izango dute zapatuan eta domekan, berriz, bandera jolasa, Arrizuriagan, 16:00etatik 20:00etara. Bazkide txartela beharrezkoa da. Bestalde, zapatuan jaieguna denez, Txiskrilabi taldekoendako ez da ekitaldirik izango oraingo aste bukaeran.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Akordiorik ez Udalaren eta merkaturko saltzaileen artean

Udala eta azokako saltzaileak ez ziren ados jartzen. Udalak 4 milioi pezeta eskatzen zituen Oxirondon zabaltzear zegoen azokako postu bakoitzeko eta saltzaileak, berriz, ez zeuden 3 milioi pezeta baino gehiago ordaintzeko gertu. Azokan hainbat egokitze lan egitea ere eskatzen zuten saltzaileak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kukulumixo"



1.Hotzak, beldurrak... kukilduta, kuxkurtuta.
—Mutiko hori kukulumixo dao.

GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

'THE ITALIAN JOB'

ZUZENDARIA: F. GARY GRAY. AKTOREAK: MARK WHALBERG, CHARLIZE THERON.

HARIA. Michael Caine ezagunak 1960ko hamarkadan egindako filmaren bertsioa. Lapurreta perfektua prestatua dute, baina Charlie Crokerrek ezin zuen imajinatu mehatxu handiena bere taldetik etorriko zenik...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●



'LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS'

ZUZENDARIA: PATRICIA CARDOSO. AKTOREAK: AMERICA FERRERA, LUPE ONTIVEROS.

HARIA. Patricia Cardoso film honek ustekabeko arrakasta lortu du, kritikaren zein ikusleen harrera beroa jasota. Anak 18 urte ditu, ikasle ona da eta mutil bat ezagutu berri du. Ahizpari jantzien lantegian laguntzen dio.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, hilak 6, 20:00etan.

PUNTAZIOA: ●●●●●

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono: 761051

R.S.I. 209374-SS

BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazoltxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

HEZKUNTZA/ Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da 2003-2004 ikasturtearen irekiera ekitaldia, 19:00etan

Jose Luis Astiazaranek irekiko du gaur Uned zentroaren ikasturte berria

MONIKA BELASTEGI
Jose Luis Astiazaranek, Realeko presidentea, egingo du Bergarako Uned-eko ikasturte berriaren irekiera ekitaldiko hasiera-hitzaldia. Horrekin batera aurreko ikasturtean ikasketak bukatu zituzten ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

Irekiera ekitaldia gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkura aretoan. Ekitaldian izango dira, besteak beste: Juan Jose Alvarez, Bergarako Uned-eko zuzendaria; Jon Barrutia, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateetako sailburuordea; Joxe Juan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako diputatu nagusia; eta Jose Luis Astiazaran, Realeko presidentea. Azkeneko hori izango da, gainera, ekitaldiko hasiera-hitzaldia egingo duena. Astiazaranek *Sentipen baten profesionalizazioa* gaia izango du hizpide.

Juanjo Alvarezk, Bergarako Uned-eko zuzendariak, esan duenez, "futbolaren atzean kirol morboa dago, baina horrez gain, asko profesionalizatu den kirola da; atzean lan sakon eta tekniko handia dago. Hori horrela eta Astiazaranek Merkataritza Zuzenbidea ikasi zuela kontuan hartuta, ikusten ez den lan hori azaltzeko ekarri nahi izan dugu, administrazio kontseilu moduan nola fun-



Uned-eko presidente Juanjo Alvarezen aspaldiko ezaguna da Astiazaran, eta pozik hartu zuen Bergarara etortzeko gonbita.

tzionatzen duten jakiteko, esaterako". Horren haritik, hitzaldirako aukeratu duen gaia ere oso esanguratsua dela azaldu du Alvarezk: "*Sentipen baten profesionalizazioa* izenburua jarri dio izenburua gaiari. Azken batean, azalduko du nola kudeatzen den horrelako enpresa berezi bat". Horrekin lotuta, Astiazara-

*Sentipen baten
profesionalizazioaz
berba egingo du
Realeko
presidentek*

nen berba batzuk aipatu ditu Alvarezk: "Astiazaranek esaten du Reala dela Gipuzkoako enpresa garrantzitsuena, bai kuantitatiboki, baita kualitatiboki ere. Eta hala da; ikusi besterik ez dago nola mugitzen duen Gipuzkoako ekonomia: autobusak, tabernak, zuzeneko eta zeharkako lanpostuak... Astiazaranek esaten du

bere makinak gizonak direla. Eta egia da". Horrez gain, Realak enpresa moduan dituen erronkak zein diren ere azalduko du Astiazaranek, besteak beste, telebistako kontuak, irudi eskubideak, nola negoziatzen dituzten kontratuak...

Alvarezek gehitu du hitzaldia egitera etortzeko gonbita berehala onartu zuela Astiazaranek: "Aspaldiko lagunak gara, elkarrekin ikasi genuen EHU Zuzenbidea, eta nahiz eta gaur bere urtebetetzea den, pozik etorriko zela esan zidan. Baldintza bakarra izan zen afal ordurako familiarrekin egon nahi zuela".

Horrez guztiaz gain, eta ohi bezala, 2002-2003 ikasturtean ikasketak bukatu dituzten ikasleei diplomak banatuko dizkiete. 37 ikaslek bukatu zituzten ikasketak eta erdia inguru hurbilduko da ekitaldira diploma jasotzera.

IKASTURTE BERRIRAKO BERRIKUNTZAK
Ikasturteko berrikuntzetako bat Gizarte eta Kultura Antropologia da. Horrez gain, 14 ikasketa Internet bidez egin daitezke, klasera joateko beharrik izan gabe eta beste 20k heziketa telematikoa eta presentziala konbinatzen dituzte. Bestetik, Kutxazabal Debarekin batera heziketa programa berezi bat ere jarri du martxan. Pertsona nagusiak zaindu beharra dituzten pertsonen eta profesionalen zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago.

Martin Ugalde parkeko atxilotuei elkartasuna adierazi die udalbatzak

M.B.
Aralarrek, EAJk eta EAK aurkeztu zioten mozioa osoko bilkurari. Haien ustez, Espainiako gobernunik euskal izaera duen edozeren aurka egiteko prest daudela argi geratu da beste behin. Bergarako Aralarrek, EAJk eta EAK mozioa aurkeztu zuten asteleheneko osoko bilkuran, Martin Ugalde parkearen kudeaketaz arduratzen den Buruntzape enpresaren kontrako polizia operazioan atxilotu zituzten pertsonen elkartasuna adierazita. Horrekin batera, Juan del Olmo epaileak agindutako miaketak eta atxilotetako salatu zituzten Aralarren, EAJren eta EAren iritziz, ekintza horrekin Espainiako gobernunik euskal izaera duen edozeren aurka egiteko prest daudela argi geratu da beste behin, eta gogora ekarri nahi izan

zuten azkeneko urteetan itxi egin dituztela *Egin* egunkaria eta irratia eta *Euskaldunon Egunkaria*. Adierazpen askatasuna oinarritzko eskubidea dela gogoratu zuten; ezinbestekoa, demokrazia batek demokrazia izateko, eta gainera, kautelazko neurriak hartzeko erabiltzen diren bigarren eta hirugarren mailako argudioen gainetik egon behar duela uste dute. Bestalde, Del Olmo epaileak agindutako operazioaren atzean euskalgintzaren mundua ahultzeko helburu politikoa besterik ezin dela egon uste dute, eta behin eta berriz errepikatzen den egoera horrek erakusten du, Aralar EAJ eta EA alderdien ustez, giza eskubideen ardura eta bermea Euskal Herriko aginte politikoaren esku ipini behar dela. Udalbatzak EAJ-EA eta Aralar alderdien aldeko botoarekin onartu zuen mozioa. PSE-EE alderdiko zinegotzia abstenitu

egin zen, eta PPko ordezkaria ez zen bilkuran izan. **BERGARA AURRERA ERE ALDE**
Bergara Aurrerari dagokionez, ohi bezala bilkurara joan ziren, eta nahiz eta boto eskubiderik ez duten, euren iritzia eman zuten idazkariak mozioa irakurri ondoren. Bergara Aurrerak bat egin zuen mozioarekin eta Euskal Herriaren aurkako erasoaren baitan kokatu zuen gertakaria, duela bi aste beste polizia operazio baten atxilotu zituzten 34 pertsonen bezala. Bestalde, udalbatzari bestelako galdera batzuk ere egin zizkion plataformak. Besteak beste, euren egoeraren gainean galdetu zuten; euren parte-hartzea nola bermatuko den, azken batean. Horrekin batera, konponbiderako egin zuten proposamenari erantzuna noiz emango zieten galdetu zuten. Alkateak erantzun zien aste honetan batzartzeko deituko ziela.

Udala, bikote homosexualen umeak adoptatzearen alde

M.B.
Mozioa hainbat lesbiana eta gay taldek aurkeztu zuten eta, batik batik, hiru puntu jasotzen ditu: alde batetik, Eusko Legebiltzarra onartutako Izatezko Bikoteen Legearen kontra PPk Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako helegitea kentzea; bestetik, Europako Parlamentuak iaz hartutako erabakiaren haritik, onar dadila bi emakumez edo bi gizonen osatutako bikoteek adin txi-

kioa adoptatzeko eskubidea; eta, azkenik, homosexualen giza eskubideak errespetatu daitezela, batik batik, berdintasunarekin eta duintasunarekin lotuta daudenak, horretarako gaur egun dauden trabak eta diskriminazioak kenduta. Alderdi guztiek bat egin zuten mozioarekin, eta PPko ordezkaria ez zen bilkuran izan. Bergara Aurreraren kasuan, bilkuran bertan izan zuen mozioaren berri eta haren alde azaldu zen.

KULTURAPILULAK

Bihar, Domu Santu eguna, 08:00etatik 19:30era egongo da zabalik hilerria
Bihar, zapatua, Domu Santu eguna, ordutegi berezia izango du hilerriak: 08:00etatik 19:30ak arte, hain justu ere. Horrez gain, gaur ere ordutegi hori izango du, biharko egunerako hilobiak prestatzera herritar ugari joaten dira-eta.

HIRIGINTZA/ Materialaren arabera laguntzarik jasoko ez duen fatxada mota zehaztu dute

Fatxadak eraberritzeko ordenantza aldatu egin dute

MONIKA BELASTEGI

Fatxadak zaharberritzeko eta babesteko laguntzak arautzen dituen ordenantzaren atal bati testu berria eranstea erabaki zuen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Eranskin horrek fatxadaren materialaren arabera baldintzak jarri ditu laguntzak jasotzeko.

Fatxadak zaharberritzeko eta babesteko laguntzak arautzen dituen ordenantzaren laugarren artikuluari egin diote eranskina. Izan ere, orain arte zegoen bezala ez zuen ezer esaten bistako adreiluz, zeramikazko plaketaz edo lauza txikiak bezalako materialak egindako fatxaden zaharberritzearen gainean. Hala, hori argitu eta dirulaguntzak zein kasutan eskura daitezkeen zehazteko egin diote eranskina ordenantzari.

Horren arabera, ez dute laguntzarik jasoko fatxadaren paramentu bertikala eta horizontala honako estaldurekin eginda duten eraikinek: bistako adreilua, zeramikazko plaketak, lauza txikiak, plakazko estaldura eta antzeko materialak. Eraikin horien azalera ez da kontuan hartuko dirulaguntzetarako.

Dirulaguntza jasoko dute, aldez, fatxadaren paramentu bertikala eta horizontala, hondo, teilatu-hegalen eta balkoien aurrealdea eta eraikinaren beste elementu batzuk honako materi-



Materialaren arabera laguntzarik jasoko ez duten fatxadak zehaztu dituzte.

alekin eraikita daudenak: kareorez edo antzeko materialez. Hori egin dira dirulaguntza jasotzeko orduan kontuan hartuko direnak.

Ordenantzaren aldaketa asteleheneko osoko bilkuran onartu

zuten EAJ-EA, Aralar, PSE-EE eta Ezker Batua alderdien aldeko botoekin. Orain, 30 egunez jendaurrean egongo da ordenantzaren aldaketa hori, ohararazpen eta iradokizunetarako.

LABUR

Arrizuriaga jauregian beste hiru gela laga dizkio Udalak Jardun euskara elkarteari

Astelehenean onartu zuen osoko bilkurak gelok lagatzea. Iaz Arrizuriaga jauregiko zazpi gela laga zizkion, eta orain beste hiru laga dizkio euskara elkarteari. Arrazoia toki falta da. Arrizuriagan honako eskaintza du Jardunek: trikitixa eta pandero eskolak, bertso eskolak eta hurren eta gaztetxoan aisialdia. Horrekin gelak bete egiten direnez, euskara maila apala duten 10-12 urte bitarteko gazteendako errefortzu eskolak herriko hainbat ikastetxetan egin behar izaten ditu. Udalak laga dizkion hiru gelok hutsune hori beteko dute.

Elkarriko koordinatzaile Jonan Fernandezek Bake Konferentzia aurkeztuko du eguenean

Bake Konferentzia berriaren gizarte eta prestakuntza fasea aurkezttera etorriko da eguenean, azaroaren 6an, Jonan Fernandez Elkarriko koordinatzailea. Hitzaldia kultura etxean izango da, 19:30ean.

Perretxikoen gaineko hitzaldia antolatu du Pertxa elkarteak datorren egubakoitzerako

Pertxa elkarteak perretxikoen gaineko hitzaldia antolatu du. Egubakoitzean, azaroaren 7an, izango da, 20:00etan. Hitzalaria Javier Elortza izango da eta landuko duen gaia *Perretxiko jangarriak eta ez egokiak* da. Hitzaldi hori elkartearen izango da, eta sarrera doan da.

Azaroan bi odol ateratze egingo dira, hilaren 12an eta 26an, Seminarioko lokalean

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea azaroaren 12an izango da. Ohi bezala, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30etik aurrera. Herriko odol emaleei parte hartzeko dei egiten zaie.

Azaroan, beraz, bi odol ateratze egingo dira, azaroaren 12an eta 26an, hain zuzen ere. Abenduan, berriz, odol ateratze bakarria izango da, hilaren 10ean.

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak arduradunak pozik dira aurten jasotako odolarekin. Hala ere, gazte jendeari dei berezia egiten odol emaille bihurtzeko. Interesa duen edonork odol ateratze egunetan Seminarioko lokalera joatea baino ez du.



ARRANO
Taberna

Kruz Gallastegi 5 • Tel. 943 76 02 54

Lepoan hartu ta
segi aurrera




ARAMBURU
H O R T Z
KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Protesiak
- Implanteak
- Endodontzia
- Ortodontzia
- Kirurgia
- Estetika

Telesforo Aranzadi 1, behea.
943 76 02 46. Bergara

GISASOLA
"Erratzu"
BURDINAKI DENDA

eta orain Gorja giltzak
aukeran...



San Pedro 8 Tel.: 943 76 27 70 BERGARA

ELKARRIZKETA

JUANJO OLAIZOLA/AZPEITIKO TREN MUSEOKO ZUZENDARIA

“Errentagarria ez zelako kendu zuten trena, baina errentagarri egiteko interesik ere ez zen”

MONIKA BELASTEGI

Udal agiritegiak antolatutako Bergara, historia topagunea zikloaren barruan hitzaldia egingo du Juanjo Olaizolak datorren martitzenean, 19:30ean, Miguel Altuman. Olaizolak Bergarako trenak gaia jorratuko du.

Zenbat linea egon ziren herrian?

Hiru. Lehena 1888an sortu zen: Durango-Zumarraga konpainia zen. Urte hartan Maltzaga eta Bergara lotu zituzten, eta urtebete geroago, Bergara eta Zumarraga. Gero, 1906an Ferrocarriles Vascongados bihurtu zen. Horren ondoren, 1918an, Vasco-Navarro trenbidea ailegatu zen Bergara: Gasteiztik Mekolalde-raino iristen zen eta horrez gain adar txiki bat zeukan Elorregi eta Oñati bitartean. Eta azkeneko konpainia Urolako trena izan zen; bailaratik kanpokoan izan arren, Bergaratik ere igarotzen zen, Aizpurutxotik, eta 1927an jarri zuten martxan.

Jendea eraman eta merkantzia garraiatzeko ziren trenok. Dena den, garrantzi handien merkantzia garraiatzeak zeukan, industria garrantzitsua zegoelako herrian.

Zenbat geltoki zeuden?

Zazpi geltoki zeuden: batek, Osintxun -Los Martires- eta Mekolalden; bestetik, Zumarragako bidean, goiko estazioa zegoen, eta Vasco-Navarro bidea hartzen badugu, beheko estazioa, Villa Vergara deitzen zena, Labe-garaieta eta Elorregi. Eta horiez



ARTXIBOA

gain, Aizpurutxo ere bai. Guztiek geltoki izaera zuten, Los Martires-ek izan ezik; geralekua zen. **Nork bultzatu zuen trena?**

Hasieran kanpotik. Bilboko konpainia bat izan zen Durango-Zumarraga trena martxan jarri zuena. Euren interesa zen Bilbo Zumarragarekin lotzea eta horre-

kin. Vasco-Navarro 1887an hasi ziren eraikitzen eta 1918an hasi zuten martxan, hainbat urtez geldi egon ziren-eta lanak. Hori horrela, Bergarako labe garaiek, besteak beste, indarra egiten jardun zuten lanak arintzeko. Are gehiago, trena Arrasate eta Mekolalde artean martxan jartzeko kontze-

la Norteko trenbidearekin konbinatzen zuten, Donostiara eta muga aldera egiteko. Herrikoek ere bazuten interesa: enpresek, udaletxeak... Interes handiena, dena den, Vasco-Navarro konpainiarekiko izan zuten, labe garaiek oso komunikazio txarra zutelako tren horre-

kin. Vasco-Navarro 1887an hasi ziren eraikitzen eta 1918an hasi zuten martxan, hainbat urtez geldi egon ziren-eta lanak. Hori horrela, Bergarako labe garaiek, besteak beste, indarra egiten jardun zuten lanak arintzeko. Are gehiago, trena Arrasate eta Mekolalde artean martxan jartzeko kontze-

sioa nahi zuten. Azkenean, Estatuak izan zen, Nafarroak eta Gipuzkoako eta Arabako diputazioen laguntzarekin, Vasco-Navarro trena martxan jarri zuena.

Azpiegitura eraikitzen jardun zuten langileak nongoak ziren?

Bertakoak eta kanpokoak. Trena eraiki ondoren, kanpoko jende asko etorri zen inguru hauetara lanera, komunikazioak hobetu egin zirelako.

Ze onura ekarri zituen?

Komunikazioa. Oso garrantzitsua izan zen industriaren garapenerako. Ezinbestekoa zen garraiobide ona izatea industria handien garapenerako. Gauza handiak eta pisutsuak kargatzen zituzten enpresak ziren.

Noiz kendu zuten trena eta zergatik?

Lehenengoa Vasco-Navarro izan zen, 1967an. Horren ondoren, 1975ean, Vascongados ere kendu zuten, eta azkena, Urola, 1986an.

Zergatia errentagarritasuna da. Ez ziren errentagarriak, baina horrez gain, interes handirik ere ez zen egon trenok bultzatzeko; errentagarriagoak egiteko.

Eta trena kentzean?

Oso kaltegarria izan zen. Komunikazio arazo handia eragin zuen. Gainera, errepideak ere nahiko kaskarrak ziren. Vergaresa autobusak jarri zituzten, baina askoz garestiagoa zen jendearentzat trena baino. Gainera, porrot egin zuen, eta jende asko gogoratuko da nola geratu zen ibarra inkomunikatuta. Eta oraindik ere komunikazio txarrak ditu bailarak. Diputazioak ere hala onartu zuen joan den astean.

Agifes elkarteak bulegoa zabalduko du herrian azaroan

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Senide eta Eri Psikikoen Elkarteak bulegoa zabalduko du herrian. Kideek Donostiara joan behar izaten zuten orain arte. Hutsunea betetzeko ibar osorako lan egingo duen bulegoa irekiko dute.

Gipuzkoako Senide eta Eri Psikikoen Elkarteak, Agifeseak, bulegoa zabalduko du Bergaran. Orain arte Donostian izan du egoitza elkarteak, eta Bergaran zabalduko dutenak Debagoien osorako zerbitzua emango du.

Bulegoa Irizar jauregiko bigarren solairuan zabalduko dute, lehen Kapirixo elkarte zegoen lekuan. Udalak laga dio egoitza Agifesi eta erabaki hori asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez.

Agifeseko kideen esanetan, datorren hilean zabalduko dute Irizar jauregiko bulego berria, nahiz eta oraindik egun zehatzik eman ez duten. Izan ere, hobekuntza txiki batzuk egingo dituzte lehenik eta behin. Hala eta guztiz ere, Agifes lanean hasita dago; senitartekoendako heziketa ikastaroa hasi dute dagoeneko. Orain-

goz bulegorik ez dutenez, ikastaroa kultura etxean egiten dihardute. Hamabostean behin izaten da, eta hurrengo bilera datorren martitzenean; azaroaren 4an, egingo dute, 10:00etan, ohi bezala.

SENITARTEKOEI LAGUNTZEA HELBURU

Batik bat sendian gaixo psikikoak dituzten familiakoei laguntzea du helburu elkarteak, eta bulegoaren xedea ere hori izango da: hurbiltzen direnei informazioa ematea, laguntza eskaintzea eta debagoiendarren artean gaiaren gaineko sentsibilizazioa piztea, besteak beste.



AINZANE IRIZAR

Irizar jauregiko bigarren solairuan jarriko dute bulegoa.



BARRENKALEKOEN BAZKARIA

Barrenkaleko auzotarrek bazkaria egin zuten zapatuan Pertxa elkartean. Adin askotariko 90 lagun elkartu ziren eta primeran bazkaldu ondoren tertulia luzea izan zuten iluntzera arte, Josu Zeziaga soinu jotzailearen laguntzaz. Barrenkaleko beteranok ziur aterako zituztela lehengo kontu zaharrak eta anekdotak. Antolatzailerik oroigarri txiki bat eman zieten Eugeni Sagasta, Juanita Maiztegi eta Maritxu Erdabide beteranoei eta Ane Madinabeitiak ere oparitxo bat eskuratu zuen. *Kikio* ezagunak ere ez zuten hutsik egin. Hurrengora arte!!!




UDAL EUSKALTEGIKO ZOZKETA

Pura Martinek aurtengo ikasturterako matrikula doan izango du Udal Euskaltegian, ikasleen artean egindako zozketan irabazle suertatu ondoren. Argazkian, Maria Dolores Lete Euskaltegiako zuzendaria, Pura Martin eta Kontxi Umerez irakaslea. Purak bigarren ikasturtea du aurtengoa Udal Euskaltegian. Zorionak!



SAN MARTINEKO IKASLEAK TRAPAGAN

San Martin ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleak Trapagako Zugaztieta barnetegian egon ziren urrian. 10 eta 11 urteko 30 ikasle inguru joan ziren hara eta udako oporraldia zertxobait luzatzeko aukera izan zuten, lagun artean. Eguraldia lagun, hainbat kirol egin zituzten eta hango meategiak ikustera joan ziren. Era berean, Peñas Negras izeneko ingurumen zentrorra bisita egin zuten ikasleek eta gauza asko ikasi dituztela esan digute. Hauek bai ikasle zintzoak...



HAURTXOA, BERRITUTA

Erabat berritu ondoren, zapatuan Haurtxoa haurtzaindegia inaugurazioa egin zuten. Guraso pilo bat azaldu zen bertara, haurtzaindegia itxura berriaz jabetzeko. Eurekin joandako haurrek, berriz, jolas egiteko eta lagun berriak egiteko aukera izan zuten. Besteak beste, gela eta espazio berriak egokitu eta altzari berriekin hornitu dute haurtzaindegia.




Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

MINGAINARITIRAKA



Juan Moreno

AKORT DENDAKOA

Juan Moreno eta Fatima Vera senar-emazteek 1992an zabaldu zuten Akort denda. Kamisetak apaintzeaz gain, publizitate artikulua ere egiten dituzte bertan. Juanek eta Fatimak seme bat daukate, Manez, lau urte dituena.

Kamiseta bat apaintzeko eskatu dizuten gauza bitxiena?
Kuleroak apaintzeko eskatzen digute aspaldian. Modan ei dago. Bestalde, objektu bitxi asko latetan sartzen ditugu.

Zelan apainduko zenuke gustura zure kamiseta bat?
Tatuajeetako marrazkiren batekin; kolore askokorik, behintzat, ez. **Zelako jendea joaten zaizue dendara?**

Adin guztiko jendea dator, enpresekin edo zaharren egoitzarekin ere lan egiten dugu-eta, arropak markatzeko, eta abar...

Lanean, musika ala irratia?

Musika nahiago.

Egondako azken kontzertua?

Niña Pastori ikusi nuen oportretan, Puerto Banusen.

Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?

Atzeko orrialdetik hasten naiz, azaleko albiste beldurgarriekin goizetik sustorik ez hartzeko...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Umearekin egon, gitarra jo...

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

Juan Salvador Gaviota/La vida de Brian/El Ultimo de la Fila.

Bergaran zerbaite botatzen duzu faltan?

Bai, umeekin egoteko toki itxi bat, jolastoki on bat.

Urtaro gustukoena? Asteko egun bat?

Udaberria. Eguna, egubakoitza, aste bukaera hasten delako.

Sukaldari ona zara?

Ez.

Gustuko janari eta edari bana?

Makarroiak eta ardo beltza.

Jantzi bat? Kolore bat?

Praka bakeroak. Beltza.

Aste bukaera baterako plan on bat?

Lagunartean bazkaria egin eta ondoren parrandatxoia egin...

Kinielan edo loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?

Niretako denbora hartuko nuke, gustuko gauzak egiteko.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Australiara.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Iñaki Pedrejon

EGIPTO / 1997ko abuztuan

Egin ditudan bidaietatik Egiptora egindakoa da beharbada gehien gustatu zaidana. Egiptiarrek egindako monumentuak zoragarriak dira benetan, euren kultura eta historia aberatsa da oso. Antolatutako bidaia baten joan ginen Glori koadrilako laguna eta biok. Bidaia-lagun gehienak katalanak ziren eta gidari egiptiar baten laguntzaz primeran moldatu ginen elkarrekin. Kairo hiriburura iritsi eta abioitik jaisterakoan lehen inpresioa beroak ematen duen kolpea da. Izan ere, bidaia osoan 45 graduko tenperatura izan genuen, baina uste baino hobeto moldatu ginen.

Kairo munduko hiri jendetsuenetakoa da: 21 milioi biztanle inguru bizi dira, eta hango zarata eta zalapartarekin lilaratuta geratu nintzen. Izugarriko jendetza eta zirkulazioa dabil hango kaleetan. Hotela Gizehko piramideetatik (Keops-en, Kefren-en eta Mikerinos-en omenez egindakoak) oso gertu geneukan, eta sinetsa gaitza da Kristo aurreko 2.000 urte lehenago-edo horrelako eraikinak egin izana. Ohiko toki turistikoek gain (Kairoko Museoa, Al-Hasan meskita eta beste hainbat), Kairoko kaleetan eta merkatuetan murgiltzea da onena, kairotarren berotasunaz gozatzeko. Oso jende jatorra eta irekia da. Uretako pipa




“Ohiko toki turistikoak ikusteaz gain, Kairoko kaleetan eta azoketan murgiltzea da onena”

“Egipton dauden eraikin faraonikoak” handiak bezain ederrak dira”

Kairora bueltatu aurretik, hiru bat egun eman genituen Urghadan, Itsas Gorrian. Urpekariendako toki aproposa da hura, eta hango koraletan *snorkle* egitea izugarri ederra da.

EDU MENDIBIL



Iñaki Pedrejon Gizehko piramideen ondoan. Keops-en, Kefren-en eta Mikerinos-en omenez egindako eraikinak dira.

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) **mireia alberdi**
DIETISTA-NUTRIZIONISTA
(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA



Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ESKUBALOIA

Gazte eta senior mailetako taldeen partidu erabakigarriak aste bukaeran kiroldegian

Gazte mailako mutilek Ereintza hartuko dute zapatu eguerdian eta domekan senior mailako mutilek El Pilarren aurka jokatuko dute Labegaraietan

EDU MENDIBIL

Gazte eta senior mailetako eskubaloitako taldeek garrantzi handiko partiduak izango dituzte aste bukaeran. Zapatuan gazte mutilek Ereintzaren bisita izango dute kiroldegian, 12:15ean. Domekan, senior mutilek Gasteizko El Pilar taldea hartuko dute, 12:30ean.

Bergara Kirol Elkarteko gazte mailako mutilen taldeak jokatutako hiru partiduak irabazi ditu, Donibaneri (16-23), Leitzarani (39-12) eta Legazpiri (20-9), aurreko astean. Biharko Ereintzaren aurkako partidua etxean jarraian jokatzen duten hirugarren partidua izango da. Bergararrak eta errenteriarrek liga irabazteko faborito nagusiak ditugu. Josetxo Muniategi entrenatzailearen arabera, jokalariek gehienek bigarren urtea dute aurten gazte mailan, eta esperientzia hori erabakigarria izan daiteke. Edozelan ere, Muniategik esan digu aurreko zapatuan Legazpiren aurka ez zutela partidu onik egin. Beraz, bihar hobeto jokatu beharko dute Ereintza talde indartsua gainditzeko.

SENIOR TALDEA DOMEKAN

Senior mailako mutilen taldeak ere beharrezkoa du domekako partidua irabaztea. Bergararrek



Gazte mailako mutilen taldeak jokatutako hiru partiduak irabazi ditu.

hiru puntu lortu dituzte orain arte eta Gasteizko El Pilar taldea euren atzetik dago sailkapenean, zero punturekin. Euskadiko ligan, jaitsiera saihesteko borrokan, aurkari zuzenak dira gasteiztarrek eta, beraz, domekako

partiduak berebiziko garrantzia dauka. Bost jardunaldi jokatuta dira dagoeneko eta mahoneroek partidua bakarrik irabazi dute. Berdinketa bati esker beste puntu bat eskuratu dute senior mailako mutilek.

KADETE MAILAKO BI TALDEAK ETXEAN

Bergara KEko kadete mailako bi taldeak ere etxean jokatuko dute. Mutilen taldeak Aloñaren aurka neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua, 10:30ean. Joan zen aste-ko jardunaldian bergararrek

Ereintzaren aurka galdu zuten Errenterian, 34-15.

Nesken taldeak, berriz, Bera Bera hartuko du domekan, 10:30ean. Oihana Garmendiaren taldeak Arrateri irabazi zion zapatuan, 8-25.

Senior mailako nesken taldeak 0-4 galdu zuen Lagun Onak liderraren aurka

E.M.

Bergara KEko senior mailako nesken futbol taldeak ezin izan zuen Lagun Onak mendean hartu zapatuan Ipintzan. Azpeitiarrek 0-4 nagusitu ziren. Hala ere, etxeokogor borrokatu ziren eta lan dezente eman zioten sailkapeneko liderrari. Lehen zatia 0-1eko markagailuarekin bukatu zen eta gola bergararrek eurek sartu zuten euren atean. Bigarren zatian, azpeitiarrek askoz erosoago jokatuta zuten eta argi utzi zuten zergatik dauden sailkapeneko lidertzan. Lagun Onak eta Anaitasuna liga nazionaletik jaitzita dira, eta Igor Larrañaga Bergarako entrenatzailearen ustetan dezente hobeak dira erre- gional mailan diharduten beste taldeekin konparatuta.

Larrañagak bigarren urtez dihardu nesken taldeko entrena- tzaile lanetan eta aurten Jose

Luis Beitiaren laguntza dauka. Larrañagak zera adierazi digu: "Urte askoan taldean jardundako hainbat jokalarik taldea utzi dute, eta talde gaztea dugu aurten. Hala ere, talde majoa daukagu, sailkapeneko goialdeko postuetan egoteko modukoa. Taldean 19 jokalarik daude eta kadete mailako fitxa duen Ainhoa Alonso ere gurekin dabil".

BERGARARRAK HIRUGARREN POSTUAN

Bergara sailkapeneko hirugarren tokian dago: jokatutako zazpi partiduetatik, lau irabazi, bat berdindu eta gainerako biak galdu egin dituzte jokalariek mahoneroek. Domekan Eibartarrak taldeari bisita egingo diote Unben, 17:00etan. Bi taldeak berdinduta daude sailkapenean.

Bestalde, taldeko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete taldea aurrera ateratzeko laguntza eman dieten guztiei.



Argazkian, senior mailako nesken futbol taldea zapatuko partiduen atarian.

SASKIBALOIA

Araneta taldearen partidua bihar kiroldegian

Aste bukaeran saskibaloitako partidua bakarrik izango da kiroldegian. Kadete mailako Araneta taldeak Gros Xakeren bisita izango du bihar, zapatua, 12:00etan. Aurreko astean Atl. San Sebastiani irabazi zioten bergararrek, 48-62.

TXIRRINDULARITZA

Txirrindulari Elkarteko batzarra eta afaria

Bergarako Txirrindulari Elkartekoek denboraldi amaierako afaria egingo dute azaroaren 15ean Zuloa elkar- tean. Afal aurretik batzarra izango da. Afarirako izen- matea San Martin plazako bulegoan egin daiteke, gutun- azal baten izena jarrita eta pos- tontzian sartuta.

OLAIA MONDRAGON

FUTBOLA

Gaztetxoak, igoera fasean sartzeko lehian

E.M.

Bergara KEko infantil mailako futbol taldeak garrantzi handiko partidua izango du domekan Anaitasunaren aurka Ipintzan, 10:00etan. Bi taldeak igoera faserako sailkatzeko borrokan dira.

Gorka Larrañagak zuzentzen duen infantil mailako taldea sailkapeneko hirugarren postuan dago, Arrasate eta Anaitasuna taldeen atzetik. Arrasate liderra bost puntura dago eta azkoitiarrak, berriz, bi puntuko alde ateratzen diete mahoneroei. Gauzak horrela, domekako partiduak berebiziko garrantzia dauka. Izan ere, sailkapeneko lehen biek jokatuko dute ohorezko ligara igoerako fasea. Domekakoa lehen itzulerako azken partidua izango da eta, beraz, bergararrek Azkoitian amaituko dute liga.

Orain arte jokatutako bost jardunaldietan bi partidu irabazi dituzte bergararrek, beste bitan berdinketa lortu dute eta partidu bakarra galdu dute. Aurreko astean Eibartarrak taldearen aurka bana egin zuten Eibarren. Galtzen joan ziren bergararrak eta Asier Gonzalezek egin zuen berdin-ketaren gola.

BESTE LAU PARTIDU IPINTZAN

Aste bukaeran beste lau partidu jokatuko dira Ipintzan. Bihar, zapatua, ohorezko gazte mailako Bergara eta Martutene taldeak izango dira aurrez aurre, 12:30ean. Arratsaldean, lehen erregionaleko taldeak Zarautzen aurka jokatuko du, 15:45ean, eta ondoren, lehen kadete mailan, Bergarak eta Aitzgorrik jokatuko dute, 17:45ean.

Domekan, bigarren kadete mailako taldeak Urki hartuko du, 11:30ean.



Argazkian, infantil mailako taldeko jokalariek Gorka Larrañaga entrenatzailearekin eta Iñaki San Jose presidentarekin.

IRIGO ZAITEGI

FOTOKIROLA



Bergarako Athleticzaleak Valladoliden egon ziren domekan

Peña Athleticen kideek Valladolidera irteera egin zuten domekan. Peñako 38 lagun joan ziren hara, eta ondo pasatu zuten arren, ezin izan zuten Athleticen jokoarekin gozatu. Athleticen partidu txarra egin zuen eta 2-0 galdu zuen Zorrillan. Hala ere, partidu aurreko giroarekin eta elkarrekin egindako bazkariarekin ondo ibili ziren zale bergararrak. /ARGAZKIA: HILARIO AZKARGORTA.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketako partiduak izango dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Bergara KEko pilota sailak Gipuzkoako Txapelketako partiduak jokatuko ditu gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. Hiru partidu jokatuko dira 19:30ean hasiko den jaialdiaren barruan. Lehenbizi, bigarren gazte mailako bikote bergararrak Aurrera Saias taldekoaren aurka jokatuko du. Ondoren, bigarren senior mailan, Bergara eta Lagunak taldeetako bikoteak izango dira aurrez aurre eta, azkenik, banakako partidu bat jokatuko da: Bergarako ordezkariak eta Arrasatekoak neurtuko dituzte indarrak.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

- 09:30: Toten-Txipiron. Antolaketa
- 10:30: Pirulotarrak-Errotagain. Antolaketa
- ZAPATUAN, BARRUAN**
- 16:00: SDTNT-Agirrebeña. Fit automocion
- 17:00: Fit-Argandolas. TMT
- 18:00: TMT-A Ze Flaxa. PDS
- 19:00: PDS-Dedo Pafarru. Pagomendi
- 20:00: Ganbara-Pagomendi. Dedo Pafarru

DOMEKAN, KANPOAN

- 09:30: Vervenir-Txipiron. Etengabe
- 10:30: K.Piperrak-Etengabe. Txipiron
- DOMEKAN, BARRUAN**
- 16:00: Bedarreta-Fac. Argandolas
- 17:00: Cosa Nostra-Argandolas. Pirulotar.
- 18:00: Pirulotarrak-Toten. Teatekh
- 19:00: Teatekh-Irubide. Torrekua
- 20:00: Torrekua-Canalejas. Irubide

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

HIRU BIDE

JATETXEA-BENTIA

Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ELKARRIZKETA

MARIA URTZELAI/AKTOREA

“Gauza magiko moduko bat, oso sentimendu berezia da ‘feeling’-a”

EDU MENDIBIL

Maria Urtzelai aktore bergararrak eta Enriqueta Vegak Tearto taldea osatzen dute. Gaur, egubakoitza, *El feeling es así* izenburuko lana antzeztuko dute Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

Zer kontatzen du *El feeling es así* lanak?

Gauza pilo bat. Lagunak diren bi neskaren arteko harremana da oinarria. Biak nahiko aspertuta bizi dira gizarteak eskaintzen dienarekin, eta errito propio moduko bat sortzen dute elkarrekin dibertitzeko eta ondo pasatzeko. Bien arteko harremanaz gain, egiten dituzten jaitxo pribatu moduko horietan beste hainbat gai azalduko dira, denoi nahiko hurbil geratzen zaizkigunak, hain zuzen. Jendea harrapatzen duen lana da horregatik.

Biniloaren aldarrikapena egiten duzue zuen lanean...

Bai, musikak berebiziko garrantzia dauka gure obran eta disko-jogailu bat erabiltzen dugu horretarako. Azken baten, badi-rudi gauza asko modaz pasatzen direla kontsumo objektuak ez badira. Hain zuzen ere, biniloa erabili dugu inoiz modaz pasatzen diren gauzak aldarrikatzeko. Materiala batzuek lan dezente eman digu eta benetan gauza bitxiak aurkitu ditugu. Ezusteko asko hartuko ditu jendeak. Gu ere harrirituta geratu gara hainbat kantuk oilo-larrua jartzeko oraindik duten indarrarekin.

Zelan sortu zen lan hori idazteko ideia?

Antzezlan horrekin hasi



ARTXIBOA

aurretik super-heroien inguruko muntaia bat prestatzen ari ginen lau neskaren artean, baina ez zuen aurrera egin. Orduan Enriqueta eta biok elkarrekin hasi ginen lanean, ideiak landuta eta testuak idatzita. Poliki-poliki lanaren egitura gorpuzten joan zen eta nahiko modu espontaneoan lan hori atera zitzaigun. Dena dela, sei hilabeteen gure kabuz

izan gara lanean, inolako laguntza barik, eta antzerkian gabil-tzanon egoera hori salatu nahi nuke, oso zaila da eta baldintza horietan aurrera egitea.

Feeling-a beharrezkoa da bizitzan, ala?

Bai, oso sentimendu berezia da, jende batekin konektatuko duzun edo ez esaten dizun gauza magiko moduko bat.

KULTURAPILULAK

Pello Zabalak eguraldiaren gaineko hitzaldia egingo du datorren egunean udaletxean

Pello Zabala eguraldi iragarle ezaguna Bergaran izango da datorren egunean, azaroaren 6an. Udazken Kulturalaren barruan hitzaldia egingo du Zabala. *Eguraldi iragarpenak: tenporak ala isobara mapak* gaia jorratuko du, eta hitzaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:30ean.

Ascensio Esnaolak taila ikastaroa emango du datorren astetik aurrera Zabalotegin

Datorren eguaztenean, azaroaren 5ean, hasiko da taila ikastaroa. Eguaztenean eta eguenean izango da, 18:00etatik 20:00etara, taila taldeak Zabalotegin duen egoitzan.

Eskolak Ascensio Esnaolak emango ditu, urtetan tailan jardun duenak, eta taila taldekoek gazteak bereziki animatu nahi dituzte ikastaroan parte har dezaten.

Izena eman nahi duenak Zabalotegiko egoitzatik pasatu behar du eskola orduetan: eguaztenean eta eguenean, 18:00etatik 20:00etara.

Sara Otaño pintoreak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, kultura etxean

Sara Otañok margo erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, kultura etxean. Hogei lan inguruk osatzen dute erakusketa, eta batik bat bidez osatuta dago. Otañoren esanetan, koloreari garrantzi handia ematen dio; margotzean kolorearekin jolas egiten duela aipatu du eta bere pintura kolorista definitu du. Jaiotzaz bergararra den arren, Hondarribian bizi da duela urte asko.

Erakusketa azaroaren 9ra arte egongo da zabalik honako orduetara: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Sendabelarren gaineko ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak datorren hilabeterako

Jardun elkarteak sendabelar ikastaroa antolatu du. Azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean izango da, 19:30etik 21:30era bitartean, Arrizuri jauregian. Egun bakoitzeko honako gaiak landuko dituzte, hurrenez hurren: desodorante naturala eta fruta likorearen prestaketa; bizkarrarendako ukenduaren prestaketa; bainurako gatzak eta kolonia uraren prestaketa; eta parfumea eta lo egiteko buruko txiki baten prestaketa.

Izena emateko Jardunek kultura etxean duen bulegotik pasa daiteke, kulturajardun@topagunea.com helbidera idatzi edo telefono zenbaki hauetara deitu: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61. Ikastaroaren prezioa 20 eurokoa da bazkideendako eta 25 euro gainerakoendako.

Italiako Fabbrica del Vento antzerki taldea egubakoitzean

MONIKA BELASTEGI

Bresciatik (Italia) Fabbrica del Vento antzerki taldea etorriko da datorren egubakoitzean, azaroaren 8an, gurera. *Sgórby-park* izenburuko antzezlana egingo du, 22:30ean, Zabalotegi aretoan.

Fabbrica del Vento 1997an sortu zen Brescian, eta aurrez beste antzerki talde batzuetan jardundako kideek osatu zuten. Orduetik hainbat lan prestatu dituzte, eta Zabalotegin egingo dutena, *Sgórby-park*, Giacomo Gambaren


zuzendaritzapean egindako zikloaren laugarrena da. Ziklo horretan, antzerki inbestigazioaz baliatuz, ongiaren eta gaizkiaren arteko auzia aztertu dute, baita boterearen eta hainbat rol hartzera behartuta dagoen gizonaren arteko auzia ere.

MUGIMENDUAREN ARTEA

Sgórby-park antzezlanean ezkutu talde baten jardun duten bi kide ohien gorabeherak kontatuko dituzte. Esperimentuak egingo dituzte bi gizon horiekin: genetikoki eraldatutako janaria, klonazioa, zelulen erreproduktzioa,

pentsamenduaren kontrola... Aurrerapenaren izenean esplotatu eta gero, *Sgórby-park* izeneko leku baten abandonatuko dituzte.

Fabbrica del Vento antzerki taldeko aktoreak Laura Mantovi eta Davide Fumagalli dira, eta antzezlaren egilea eta zuzendaria, berriz, Giacomo Gamba. Bestalde, mugimenduaren artea da lanerako teknikaren oinarria; arte horretako hainbat teknikatik sakondu dute eta gorpuztaren mugimenduek garrantzi handia dute Italiako taldearen lan egiteko moduan.

Irudian, *Sgórby-park* antzezlaren une bat.

GUREGAIK/ BERTSOLARITZA

Jarduneko bertso eskolak aurrera jarraitzen du

AINTZANE IRIZAR

Aurreko ikasturtean sortu zituen Jardun euskara elkarteak umeen eta helduen bertso eskolak. Aurten 22 lagunek dihardute bertsoan ikasten, Enaitz Alustiza bertsolari bergararrekin.

Bertsolaritzari bultzada emateko beharra zegoela ikusita eta bertsoekiko zaletasuna berpizteko

helburuarekin sortu zuen Jardun elkarteak bertso eskola, iazko urrian. Aurten, berriz, irail bukaeran ekin zioten ikasturte berriari.

Umeen bertso eskolan sei neska mutikok dihardute. Helduen eskolan, berriz, hamasei lagun dabilta, Enaitz Alustiza irakaslearekin.

Lehendabiziko egunetik hasten dira ikasleak bat batekotasuna lantzen; hots, lehenengo egunean bertan hasten direla, bat-

batean, bertsoak botatzen. Hori xe ei da bertsoan ikasteko modurik egokiena, beste bertso eskola askotan frogatu ahal izan dutenez.

Bertsolaritzaren gaineko bestelako gaiak ere lantzen dituzte eskolan: bertsolaritzaren funtzioak, lehengo eta oraingo bertsolariak, bertso zaharrak...

ESKOLATIK KALERA

Bertsolaritza, baina, ezin da eskola barruan geratu; horregatik, urtean zehar hainbat ekitalditan

parte hartzen dute bertso eskolakoek: auzoetako jaietan, Mendekosteetako triki-bertso txikiteoan, Jarduneko urte amaierako jaialdian...

Ikasturte berriari ekin eta berehala, orain dela bi aste, Bertsokolax emanaldia eskaini zigten UNEDeko aretoan, antzerkia eta bertsoak uztartuz.

Eskola honek atea zabalik ditu bertsolaritzaz zerbait gehiago ikasi nahi dutenendako. Hortaz, badakizue, animatu!

GAZTE INFORMAZIO GUNEA, GAZTE GUZTIENDAKO
Herriko gazte guztiendako zerbitzua da Gazte Informazio Gunea. Era guztietako informazioa ematen dizuete hantxe: ikasketak, lana, bidaiak...
Errotalde Jauregiko bigarren solairuan dago, eta hona hemen ordutegia: eguen eta egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara; zapatutan, berriz, 09:30etik 13:30era egoten da zabalik.

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



Barceló Bidaiak

Zoaz Realarekin Atenasera!

AZAROAREN 22TIK 26RA

- Hegaldia Biarritzik
- Hiru izarreko hotel berritua erdialdean
- Gidari laguntzailea
- Lekualdatzeak barne
- Sarrerak ziurtatuta!**

Informazioa:
Zurradero 4
943 76 08 43
jobergara@barceloviajes.com

ZAHARRAKBERRI

Amaitu berri den Kultur Hamabostaldiaren balorazio positiboa egin dute erretiratuek

E.M.

Kultur Hamabostaldia agurtzeko erretiratuek bazkaria egin zuten zapatuan. Hamabostaldia aurrera ateratzeko gogor lan egin ondoren, zapatuan patxada hartzeko eta jai giroan murgiltzeko ordua heldu zitzaizen erretiratuei.

Amaitu berri den Kultur Hamabostaldian lortutako erantzunarekin pozik azaldu dira erretiratuak. San Joxepeko zuzendaritzako arabera, ekitaldietan partaidetza handia izan da. *Edadetuak, gizarte alaketaren bultzatzaile* Hamabostaldiko leloari eutsiz, erretiratuek argi utzi dute badutela zer esan eta zer egin, gizartean aktibo jarraitu nahi dutela. Erretiroa aisialdi ez-eman-korrarekin lotzen da askotan, eta ideia horri buelta eman nahi diote. Herriaren alde adinekoek lan aipagarria egin dezaketela azpimarratu dute.

Hamabostaldian izandako hitzaldietan jendez gainez egon da



MARKOS LABAIEN

Argazkian, belaunaldien arteko harremanen gainean egindako idazlan lehiaketan saritutako ikasleak.

Miguel Altunako aretoa eta ideia bat argi geratu da: benetako bizi kalitatea zentzuarekin bizi izatea

dela, garapen pertsonalaren bidean jarraitzeko. Bestalde, belaunaldien arteko harremanak sen-

dotzeko beharra ikusi dute. Honekin lotuta, kolektibo gazteagoekin hainbat ekitaldi egin dira Hama-

Erretiratuen egoitzaren historiaren gaineko liburua azaroaren 7an aurkeztuko da

bostaldian.

IKASLE SARITUAK

Ikasleen arteko idazlan lehiaketan Antzuolako eta Bergarako 400 ikaslek hartu dute parte. Lehen Hezkuntzako artean Haraitz Diazen (*Hiru ahizpak*) eta Enara Alberdiren (*Denboraren makina*) lanak saritu dituzte. Bigarren Hezkuntzako artean, berriz, Ainara Sangronizek (*Zaharren bizimodua*) eta Idoia Larrañagak eta Olatz Etxeberriak (*Edadetuak*) jaso zituzten sariak.

Bestalde, erretiratuen egoitzaren gaineko liburua azaroaren 7an aurkeztuko dute udaletxe osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

- Beilatokia
- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak - eskelak

Amilaga, 39 ▪ 20570 BERGARA
Tel.: 943 761 299 ▪ Faxe: 943 761 299
e-mail.: euskalduna@harrespil.net





Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 ▪ 20004 DONOSTIA
Tel.: 943 894 940 ▪ Faxe: 943 894 941
e-mail.: harrespil@harrespil.net

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze tokitan dago ezkerreko oroitarria eta norako bidean eskumakoa?

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Eustakio Agirreolea (eta III)

UDAL ARTXIBOA

Garaiko kultura eta politika alorretan era aktiboan hartu zuen parte Agirreoleak. Abertzalea eta fede handiko gizona zen. Anaia Fidel Bilbon egon zen eta handik ekarri zituen Bergarara Sabino Aranaren ideiak. Zubietako Arando tabernan hasi zen biltzen lehen nazionalista-taldea. EAJk 1904ko abenduaren 12an ireki zuen lehen egoitza Bergaran, Bidekurutzetako 7. zenbakian, eta Agirreoleak pintatu zuen lokala. Bergaran 1905ean egin zituzten Euskal Jaietarako erakusketa etnografikoa, opera eta argiteria antolatu zituen. Gerra piztu zenean Donostiara joan zen bizi izatera, emazte Juliana eta alaba Nati eta Mirenekin. Familiakoek diotenez, Donostian atxilotu egin zuten, baina egun gutxi eman zituen kartzelan, familiak egindako gestioei esker. Bergarako Arte eta Ofizioetako Akademian izan zituen ikasleek omenaldia prestatu zioten 1947ko irailean. Simon Arrieta pintorea eta dizipulua izan zen sustatzailea. Eustakio Agirreolea Donostian hil zen, 1952ko apirilaren 1ean.

Gerra piztu zenean, familiarekin Donostiara bizi izatera joan zen. 1952an hil zen



Eustakio Agirreolea Juliana Arana emaztearekin.

GALDEDEBALDE

1. Work egin du Bergarako UNEDeko kurtso irekierako hasiera-hitzaldia?
A/ Jose Luis Astiazaranek.
B/ Vicente Madozek.
C/ Juanjo Olaizolak.
2. Zeintzuk dira Bergara KEko senior mailako nesken futbol taldeko entrenatzaileak?
A/ Larrañaga eta Pope.
B/ Larrañaga eta Beitia.
C/ Larrañaga eta Garai.
3. Zein da Maria Urtzelai bergararrak eta Enriqueta Vegak osatutako antzerki taldea?
A/ The feeling.
B/ Tearto.
C/ Meritxein.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
MARI DIEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mari! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Irizar etxean eta eskumakoa Ondartza etxean / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Pepsi Cola
8 lata x 33 cl

2,19 €
364 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak Erreilenoak Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

etxalar

kafetegia kruasantegia

Boni Laskurain 4 BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea. BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903



BERGARA
Mikel San Torcuato
Azaroaren 3an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Alazne Etxabarri
Azaroaren 4an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Helena Diaz
Urriaren 29an, 9 urte.
Urte askotarako! Muxu
handi bat. Etxekoak.



BERGARA
Endika Gandiaga
Azaroaren 2an, 8 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Nora Etxarri
Azaroaren 4an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Mugita
Azaroaren 4an, 9 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Mikel.



BERGARA
Iker Mellado
Azaroaren 6an, 9 urte.
Urte askotarako!
Familia eta Jokin.



BERGARA
Irati Ugarte
Azaroaren 6an, 2 urte.
Zorionak katutxo!
Ondo pasatu. Etxekoak.



BERGARA
Andoni Olabarria
Urriaren 29an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Vicente Piñero
Urriaren 30an, urteak.
Urte askotarako! Emaztea,
eta Alex eta Jokin semeak.



BERGARA
Andoni Barribero
Urriaren 31an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Aitzol Azula
Urriaren 30an, 12 urte.
Zorionak! Aitita Mariano
eta amama Antoni.



BERGARA
Aitziber Yera
Azaroaren 3an, 7 urte.
Urte askotarako!
Unai eta gurasoak.



BERGARA
Irene Ramos
Azaroaren 3an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak, bereziki
Nekane eta Maitane.



ANTZUOLA
Goiuri Gomez
Azaroaren 2an, 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Paul Roman
Azaroaren 5ean, 3 urte.
Urte askotarako!
Araceli eta etxekoak.



BERGARA
Andoni Moñux
Azaroaren 2an, 6 urte.
Zorionak! Aitatxo, amatxo
eta Miriam.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua



ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Enplegu Zerbitzua ■

*EUSKO JAURLARITZAKKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAK
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATURIK*

EMAKUMEENTZAKO SOLDADURA IKASTAROA

Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin, lanerako prestakuntzako ekintzen artean emakumei zuzendutako soldadura ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

IKASTAROAREN HELBURUA: soldadura arloan emakume talde bat trebatzea, lanpostu bat lortzeko helburuarekin.

NORENTZAT: emakume langabetuentzat.

IKASLE KOPURUA: taldea gehienez 15 ikaslez osatuko da.

TOKIA: Olaburu Enplegu Zentroa, Zubillaga auzoa (Oñati)

ORDU KOPURUA: 400 orduko ikastaroa

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara.

NOIZ: 2003ko azaroaren 17tik 2004ko apirilaren 30era arte.

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATUA



DIRULAGUNTZA ZEINEK EMANA



IZENEMATE EPEA: 2003ko azaroaren 7ra arte, Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuan. Tel. 943 79 09 00.

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserriá, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HORTZ-PROTESIKOAK

- MARTINEZ Begoña** Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- IKERLEKU PODOLIGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko urriaren 31a / 176. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Iñigo Alonsok irabazi du aurtengo Argazki Lehiaketa

ANTZANE IRIZAR

Nagusien mailan, Iñigo Alonsok irabazi du Udalak antolatutako Argazki Lehiaketa. 15 eta 25 urte bitartekoen mailan, berriz, Nagore Igartzak irabazi du lehiaketa; 14 urtetik beherakoen artean, azkenik, Julian Ramirez de Okariz gaztetxoa izan da irabazlea.

Hostoa lanarekin irabazi du Argazki Lehiaketa Iñigo Alonsok, helduen mailan. Mikel Lopez, berriz, bigarren geratu da, *Ilunpeko lanak* izeneko argazkiarekin. Sei lagunek hartu dute parte helduen mailan eta guztira 17 argazki aurkeztu dituzte.

Juan Kruz argazki dendako Mari Paz Ugalde eta Bergarako Kiñu argazki dendako Juanje Amasorrain izan dira epaimahako kideak. Euren esanetan, ez da batere lan erraza izan erabakia hartzea; zalantza handiak izan dituzte lehen postuetan geratu diren bi argazkien artean.

15 eta 25 urte bitartekoetan, bestalde, Nagore Igartza izan da irabazlea, *Oreka* argazkiarekin. Oier Peñagarikanok, berriz, bigarren saria eskuratu du, *Begirada iluna* lanarekin. Maila horre-



Hostoa argazki irabazlea, Iñigo Alonsorena.

tan ere sei lagunek hartu dute parte eta 18 lan aurkeztu dituzte.

Txikien mailan, azkenik, sari bakarria eman dute; Julian Ramirez de Okarizek irabazi du, *Cabarceno parkian* izeneko argazkiarekin.

ASTEBURUAN ERAKUSKETA

Lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute asteburuan; 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Sariak domekan banatuko dituzte, 19:00etan, Olaranen.

DOMU SANTU EGUNA

Hilerria egun osoan egongo da zabalik

ANTZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, Domu Santu eguna dela eta, egun osoan zabalik egongo da herriko hilerria. Astelehena ezkerro, egunero dago zabalik hilerria, eta datorren astean ere halaxe egongo da.

Egunotan jende ugari ibili ohi da hilerrian, loreak eta kandelak eramaten. Horrexegatik, hain zuzen, zabaltzen dute hilerria aste osoan.

BI ASTEAN BEHIN ZABALTZEN DUTE

Urtean barrena, hamabostean behin zabaltzen dute hilerria, domeketan, goizetik iluntzera arte. Dena dela, edozein egunetan hilerria joan nahi duenak udaletxeko bulegora jo dezake, eta hilerriko giltza lagako diote.

Uzarragako hilerria ere zabalik egongo da Domu Santu egunean. Urtean barrena ere, normalean, zabalik egoten da auzo horretako hilerria.



Astelehena ezkerro zabalik dago hilerria, eta halaxe egongo da datorren astean ere.

HERRITARREN HITZA / Ainhoa Ugarteburu • Soziologoa

Aukerak

Lana, etxia, kotxia, familia, txakurra, ez da plan txarra, ezta? Gehixenok, lehentxuago edo berandutuago nahi izan dogu bizitza antolatzea, familia osatzea eta gure txokua egittia gizartiaren barruan. Gainera, gehiengoak egiten dau, beraz, edukiko ditutu bentajak.

Ona baldin bada be, formula honek, nere ustian, badauzka pare bat baina: batzutan, ez da lana bihar izaten dana, baizik eta lan ona, kotxe garestia, etxe haundia, familia perfekta, pedigreedun txakurra. Honek egoeria aldatu egiten dau, jende guztiandako balio ez

daben aukeria bihurtzen dau.

Pertsona batzuk, formula magiko honetatik kanpo daude, batzuk ezin dabelako, eta beste batzuk ahal izanda be, ez dabelako nahi. Elkarrekin ez bizitzia aukeratu daben bikotiak edo seme alabarik ez edukitzia pentsau dabenak; narrua lantzen baserri baten lanian dabilen gaztia; lanera bizikletaz juten dana; etxe hutsak okupatu eta eskubide danekin bertan



"Pertsona danok ezberdinak izateko eskubidia daukagu"

bizi diren pertsonak; bere bizitza ideologia edo gizarte antolaketa konkretu baten alde burrukan urtetan dabilena; motxilia hartu eta beste herrialde batera juten diren buhame berrixak, mila adibide daude.

Danok berdinak bagina, ez zan gure gizarte honetan kolore eta matizera-ko aukerarik egongo. Geure uste onenakin bizitza estilo bat aukeratzen baldin badogu, horrek ez dau esan nahi, geuria

eta gehienguana onena danik, eta bestiena ustela eta balio barikua danik.

Batzutan, gainera, gure inguruak jan egiten gaitu eta konturatu barik, bizimodu konkretu batera bideratzen gara konturatu barik, lepua apur bat okertu edo luzatu ezkerro, ikusiko ginuke mila bizitza modu berri daudela bestaldian, igual, gutxiengo batek aukeratuak, baina lehenengua bezain baliozkuak.

Pertsona danok diferentziak izateko eskubidia daukagu, bizitza formula ezberdinak aukeratu be topau geinke gure lekua gizartian.

LABUR

Izarraitz aldera irteera egingo du Arrolak

Azaroaren 9an, domeka, Izarraitz aldera irteera egingo dute, Arrola mendi elkarteak antolatuta. Azurki gainera irten, eta Xoxote eta Erlo mendia gainera joango dira. Mendi tontorrean hamarretakoa egin ondoren, Azpeitira jaitsiko dira. Guztira hiru ordu eta erdiko ibilaldia egingo dute.

Irteera horretan parte hartu nahi dutenek hilaren 4an, martitzena, eman beharko dute izena Arrolak Kaleberren duen egoitzan, 19:00ak eta 20:00ak bitartean.

ELKARRIZKETA

ALAZNE ALBERDI/ZINEMAKO ARDURADUNA

"Euskarazko eta gaztelaniazko filmak eskainiko ditugu, txandaka"

Alazne eta Uxue Alberdi ahizpak izango dira aurrerantzean zinemako arduradunak. Domekeko umeendako film bat eskaintzen dute Olanen etxeko aretoan, 16:00etan. Guk Alaznerekin berba egin dugu.


Noiz hasi zarete lan honetan?
Orain dela hiru aste hasi ginen Uxue eta biok zinemako arduradun. Alaitz Jauregi eta Aitziber Goñi urtetan ibili dira; gero, beste batzuk hasi ziren, baina unibertsitatean ikasten dute eta oso malla egiten zitzaien dena batera egitea. Horrela, geuri proposatu ziguten.

Zein izaten da zuen lana?
Hasteko, filmak erostez geu arduratzen gara; gero, asteburuan egongo den pelikula iragartzeko, kartelak jartzen ditugu herriko hainbat tokitan. Domekan bertan, Olanen etxeko aretoa egokitu behar izaten dugu; aukerak eraman eta ilaran jartzen ditugu. Bukatzeko, sarrera kobratzez ere geu arduratzen gara.

Umeekin ondo konpontzen zarete?
Bai. Oraingoan, behintzat, ez dugu inolako arazorik izan; nahiko formalak dira. Gainera, nahiz eta litxarreriak jan, ez dute aretoa batera zikitzen, oso txukunak dira.

Zelako filmak eskainiko dituzue?
Umeendako emanaldiak izango dira guztiak: marrazki bizidunak batzuk baita bestelako filmak ere. Hori bai, euskarazko filmak eta film gehien eskaintzen ahaleginduko gara; txandaka eskainiko ditugu, gaztelaniazko eta euskarazko filmak.

Zinema gustatzen zaizu?
Bai, oso gustura joaten naiz zinemara; baina ez, adibidez, Bergarako zinemara. Joatekotan, zinema handi eta berrietara joatea gustatzen zait; filmak aretoan ikustea gustatzen zait.



"Umeendako emanaldiak izaten dira guztiak: marrazki bizidunak eta bestelakoak"

Dena dela, ez naiz askorik joaten, aukera gutxi izaten dut-eta.
Zelako filmak gustatzen zaizkizu?
Denetatik gustatzen zait; hori bai, beldurrezkoak ez zaizkit batera gustatzen, izan ere, oso beldurtia naiz.

"Beldurrezkoak izan ezik, era guztietako filmak gustatzen zaizkit niri"

Gustuko film bat?
American Pie, esate baterako. Edozelan ere, niri guztiak gustatu zaizkit; izan ere, gazteon kontuez jarduten dute film guztietan.
Gustuko aktore bat?
Unax Ugalde.

ANBULATORIOA

Igogailua laster jarriko dute martxan


AINTZANE IRIZAR

Uztailerako amaituta zeuden anbulatorioko igogailuaren lanak, baina oraindik ez dute martxan jarri. Udalak egin zituen lan horiek, baina igogailuaren mantentze-lanak eta funtzionamendua Jaurlearitza arduratzen izango dira. Horretarako, igogailua eta lursail zati hori Jaurlearitza laga beharko dizkio Udalak. Tramiteok egiten dihardute

orain, eta horiek bukatu orduko jarriko dute martxan igogailua.

Gogoratu behar dugu uztailan, herriko jaietan, hainbat kalte eragin zituztela igogailuan ezezagun batzuek. Kalte haiek, baina, aspaldi konponduta daude. Oraingo arazoa ez da hori.

Anbulatorioan igogailua jartzearekin, irisgarritasun planean beste urrats bat emango du Udalak, ezinduek oztoporik izan ez dezaten.



Igogailua eta lursail zati hori Jaurlearitza laga dizkio Udalak.

KIROLA

Bihar, zapatua, hasiko da pilota txapelketa

A.I.

Olalde elkarteak antolatuta, bihar, zapatua, hasiko dute herri mailako pilota txapelketa. Eskuz binakako txapelketa izango da, eta bi mailatan jokatu dute. Aurreko astean bukatu zen izena emateko epea, eta, guztira, 17 bikotek hartuko dute parte. Horietatik 13 bikote lehiatuko dira bigarren mailan eta gainerako laurak lehenengo mailan.

PARTIDUAK, ZAPATURO

Esan dugun moduan bihar, zapatua, hasiko da pilota txapelketa. Horrela, zapatu goizero jokatu ditzute partiduak Udalen Pilotalekuan. Goizeko bederatzietan izango dira.

Abenduaren 13an finalurrekoak jokatu ditzute eta hurrengo zapatuan, abenduaren 20an, jokatu ditzute txapelketako finalak, bai bigarren mailakoak eta bai lehenengo mailakoak.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Azaroak 1
11:00: Antzuola-Zumaia (Neskak)
15:30: Antzuola-Arrasate (Gazteak)
Azaroak 2
16:00: Antzuola-Arrasate (Kadeteak)

PILOTA
Urriak 31 (Gipuzkoako Txapelketa)
19:15: Olalde-ikaskirola (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 4 Legazpi 2 (2. erreg.)
Eibartarrak 1 Antzuola 3 (Gazteak)
Aretxabaleta 6 Antzuola 0 (Kadet.)
Antzuola 1 Urki 0 (Neskak)

PILOTA
Gipuzkoako Txapelketa
Olalde-Bergara (Infantilak) 10-18
Eibar-Olalde (Kadeteak) 21-22
Olalde-Oiangu (Paletaz nag.) 19-35

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI

taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko urriaren 31a / 160. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Elgetatik Bergarara joateko, egunean hiru autobus baino ez daude eta asteburuetan ez dago autobus zerbitzurik.

Autobus gehiago eskatu dituzte herritarrek

AINTZANE IRIZAR

Garraio publikoaren arazoa zenbaterainokoa zen ikusteko herritarren artean galdeketa zabaldu zuen Elgetako Udalak. Erantzunak jasotzeko epea amaituta, ehunetik gora orri batu dituzte udaletxean, eta emandako erantzunak askotarikoak izan dira.

Inguruko herrietara joateko autobus zerbitzua oso urria da elgetarren ustez. Bergara eta Eibarrrera joateko egunean, linea arruntean, bi autobus baino ez dira pasatzen eta ordutegia ez da herritarrentzat egokiena.

Hori dela eta, garraio publikoaren gainera galdeketa egin zuen Udalak eta elgetarrek emandako erantzunak askotarikoak izan badira ere, hiru multzotan banatu dituzte: batetik, enpresetara joaten den jendea dago. Horiek goizean goiz, lantokira joateko zein gaueko txanda egin ostean, etxera bueltatzeko behar dute autobusa, baita eguerdian eta iluntzean ere. Eskaria Elgeta eta Eibar arteko bidea egiten duten langileena da batik bat.

Bigarren taldean ikasleak daude. Egutero Bergarara joaten diren bederatzi ikasle daude Elgetan. Goizeko 08:00etarako eskolan egon behar dute eta bueltatu, berriz, eguerdiko 14:30ean egiten dira. Iaztik hona ikasleen kopuruak behera egin du; horrenbestez, bakoitzak ordaindu beharreko kopurua igo egin da. Hori dela eta, Udalak, arazoa konpondu bitartean, ikasleei hilean 5.000 pezetako diru laguntza ematea erabaki du, urtea amaitu artean lehenengo eta baliteke otsailera arte luzatzea.

IRTENBIDE BILA

Azkenik, Bergarako eta Arrasateko osasun etxetara joateko ere oztopo da garraio publiko zerbitzu egokirik ez izatea. Izan ere,

Alkatea Foru Aldundiko garraio arduradunarekin egon da; arazoaren berri eman dio

medikuarekin txanda goizeko lehen orduan izanez gero, joateko bada autobusik, baina bueltarako eguerdiko 14:00ak arte egon behar da zain. Arrasatera joateko, aldiz, ez dago zuzeneko zerbitzurik.

Arazoari irtenbidea aurkitu nahian eta herritarrek garraio publikoaren gainera dituzten kezka azaltzeko, Patxi Basauri Elgetako alkatea eta Antzuolako alkatea Foru Aldundiko garraio arduradun Kote Olaizolarekin elkartu ziren joan zen astean.

Arazoa aztertzeko eskatu zioten, eta behin irtenbide bat ematekotan sakona izan dadila exijitu. Izan ere, alkateen ustez, ez litzateke ezer lortuko autobus zerbitzu gutxi batzuk gehituta, herritar guztien nahi eta beharrei erantzun behar zaie-eta.

Horretarako, bi herri horietan garraio publikoaren plan pilotua egiteko proposamena egin zioten. Hala, Foru Aldunditik gai horri buruzko erantzuna bi aste barru jasoko dute.

Bitartean, herritarrek orain arteko autobus zerbitzu berbera izango dute, eta lehen bezala moldata beharko dute.

KIROLAK

Sei pilota partidu asteburuan jokoan

I.A.

Helduendako lau t'erdiko pilota txapelketa jokoan da. Bigarren jardunaldiko partiduak joan den zapatu eta domeka bitartean jokatuzituzten Elgetako pilotalekuan eta ikusleek joko politaz gozatzeko aukera izan zuten.

Zapatuan Arantzetarrak nagusitu ziren Larrearen eta Arkarazoren kontra (22-11). Domekan, iragarritako bost partiduetatik lau jokatuzituzten eta beste bat atzeratu. Ugarteburu-Antton, Morales-Zenitagoaia, Otxoa-Elkoro eta Irazabal-Izagirre bikoteek irabazi zituzten norgehiagokak. Partidu lehiatuena, emaitzari dagokionez, Otxoa-Elkoro bikoteak Sesiaren eta Ireiren kontra jokatutakoa izan zen, 22-21 amaitu zen-eta.

Txapelketak aurrera segitzen du, eta jende asko gerturatzen da frontoira. Txapelketako partaideetariko batek zera esan digu: "Oso giro polita sortu da. Ez genuen uste hainbeste herritar etorriko zenik, eta gustura gaudere erantzunarekin".

Asteburu honetan bertan beste zenbait partidu jokatuko dituzte. Txapelketak urte amaierara arte iraungo du. Hain zuzen ere, finalak Gabon zahar egunean jokatuko dira. Aurrez gaztetxo- en txapelketako finalak izango dira jokoan.

Asteburuko partiduak

URRIAK 31, BARIKUA

20:30: Txapel/I. Agirregomezkorta-Otxoa/Mikel Elkoro

Ondoren, J.R. Irazabal/Iñaki Izagirre-Alex Arantzabal/Alberto Telleria


Ondoren, Asier Morales/F. Zenitagola-Migel Arantzeta/J.M. Arantzeta

AZAROAK 2, DOMEKIA

11:30: Mikel Larrea / Mikel Arkarazo-Arrota/Epi

Ondoren, E. Zubiaurre/J.M. Zubiaurre-I. Ugarteburu/Antton

Ondoren, F. Olaortua/Iñaki Gorostiza-Sesia/Satur



Helduen lau t'erdiko txapelketako bi jardunaldi jokatuzituzten dagoeneko.

HERRI LANAK

Maalako parke ingurua eta Salbador kalea berritzeko proiektuak aurkeztu ditu Udalak

I.A.
San Roke kale ostean dagoen Maalako parkea eta ingurua txukuntzeko eta egokitzeko erabakia hartu du Udalak, eta horretarako proiektua aurkeztu berri du. Parkea bera txukundu eta ziburuak egokitzeaz gain, loreak ipintzeko asmoa azaldu dute, baita paseoa egiteko ere. Eta iturria ere egongo da, parkean bertan edo handik gertu. Azkenik, ermitatxo bat eraikitzea ere zehaztu dute; izan ere, Gotzaindegiarekin hitzarmena egina dute. Oraingoan, proiektua aurkeztu baino ez dute egin eta laster jendaurrean jarriko dute ikusgai, gura duenak ekarpenak egin ditzan. Lan horiek egiteko 289.996 euroko aurrekontua zehaztu du

Udalak, baina planak aurrera egin dezan onartu egin behar da, eta horren arabera erabakiko dute obrak noiz egin. Edozelan ere, Udalak obra plangintza ez du Maala ingururako bakarrik egin; izan ere, lehengo San Roke kalean egin zuten bezalaxe, Salbador kalean berrikuntzak egitea erabaki dute, eta horretarako proiektua prest dago. Bertan estoldak konpontzeko eta kableak lur azpitik sartzeko asmoa dago, besteak beste. Eta farola berriak ipintzea eta espaloiak errepidearen altuerara egokitzea dira plangintza horretako beste puntu batzuk. Proiektua onartzen badute, ordea, lanak ezin izango dira hasi sailhesbidearen lehenengo zatia eginda ez badago, zirkulazio arazoak sortuko lirarteke-eta.




Maalako parke inguruan ermita bat eraikiko dute besteak beste.

IBAN ARANTZABAL

LABUR

Gaztaina jana eta kontzertua datorren barikuan

Urtero bezala, aurten ere Gazte Asanbladak Gaztainerre Eguna antolatu du. Datorren barikuan, azaroaren 7an, izango da. Gaztainak jateko aukera eskaintzeaz batera, musika ere egongo da. Plazan erreko dituzte gaztainak gaztetxekoek eta lehenengoak 19:00ak aldera banatzeko asmoa dute, borondatearen truke. Guztira 15 kilo gaztaina prestatuko dituzte danbolinean. Gaztainerre Eguneke jaia, ordea, ez da jan hutsarekin amaituko; izan ere, gauean, 23:00ak inguruan hasita, kontzertua egongo da gaztetxean. Eraso talde zarauzarrak eta Bergarako Supercols taldeak jardungo dute eta bertara joan nahi dutenak hiru euro ordaindu beharko dituzte sarreran.



Odola ematera 40 lagun joan ziren martitzenean

Urtean bi odol ateratze egiten dituzte Elgetan, urrian bata eta apiril inguruan bestea. Joan den martitzenean, Odol Emaileen Elkarteak egindako deia 40 elgetarrek erantzun zioten, tartean hiru odol emaile berrik. Emakumeek bertaratu zirenen gehiengoa osatu zuten: 22 izan ziren. Odol Bankutik adierazi digutenez, odol taldeak zein izan diren ikusita datu bitxi bat azpimarra daiteke: odol emaileen gehiengoa, %30, hain zuzen ere, 0- taldekoa da, hain zuzen ere. A+ motakorik, berriz, ez zen bat bera ere joan. /I.A.

OLIO BILKETA

Erabilitako 150 litro olio jaso dituzte

I.A.

Etxean erabilitako olio batuko dute gaur, urriak 31, barikua, Herriko Plazan, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Mankomunitatea arduratzen da olio biletaz eta horretarako furgoneta bat ipiniko dute. Beraz, nahi duten elgetarrek bi hilabete hauetan pote batean gordetako olio bertara eraman eta trukean xaboa jasoko dute.

Mankomunitatea lan horretaz arduratzen hasi zenetik hona bi aldiz egin dute bilketa Elgetan. Izan ere, bi hilabete behin joaten dira bertara. Ekainean 18 lagun joan ziren plazara eta guztira 90 litro olio eraman zituzten. Eta irailean bisitak gehiago izan baziren ere -26, hain zuzen ere-, sukaldean erabilitako 60 litro olio batu zituzten.

Sukaldeko olioaz gain, motor olio ere jaso dute, unitate bakarra. Mankomunitateak batutako pila kopurua ere eman digute aditzera: ekainean zortzi pila izan ziren eta irailean, aldiz, 200.

Mankomunitateak hurrengo olio bilketa hemendik bi hilabetera egingo du, abenduaren 26an, hain zuzen ere.

TRASTE ZAHARRAK

Bestalde, hamabost egunean behin egin ohi duten moduan, datorren azaroaren 6an, egunean, etxeko traste zaharren bilketa egingo dute. Beraz, herritarrei jakinarazi nahi die etxean zaborretara bota nahi dituzten traste zaharrik badaukate, iluntzeko 20:00etatik 22:00etara bitartean edukiontzien ondoan laga beharko dituztela, eta ondoren, zabor-biltzaileek jasoko dituzte.

Banatzailleak

Bariku arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora eta Martagatik galdetu

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Ozkarbiko
dantzariak
plazan

Elgetako plazan dantzarako prest dago mutiko talde hau. Alkandorak besoetan jasota dituztenez, udan ateratako argazkia dela pentsatzen dugu; baliteke herriko jaietan izatea. Urtea, berriz, 1965a da. Izan ere, Ozkarbi Elkarteko Dantza Taldekoak dira zortzikotea osatzen duten mutilak eta, seguru aski, txankarrankua dantzatzeko gertu egongo dira denak. Baina ez dakiguna da nor altxatu zuten dantzian.

Elgetan ez ezik inguruko herrietan ere jarduten zuten dantzan Ozkarbikoek, bai talde honetako mutilek zein beste batzuk, baita neskek ere.

Erretratukoak honako hauek dira, ezkerreko ilaran, aurretik atzera: Alberto Arantzeta, Joseba Elkoro, Txomin Askasibar eta Pello Gorrotxategi. Eskuman: Juan Luis Arantzeta, Iñaki Arantzeta, Alberto Agirreazaldegi eta Juan Luis Alberdi.

Argazkia: A. Agirreazaldegi



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


ELGETA

Tunela herri
sarreran

Herri barrura sartzeko eta herritik Bizkai alderantz eta Eibarre-rantz joateko tunela pasatzen du jende askok. Garai batean, apenas pasako zen autorik bertatik, baina gaur egun, semaforoak ere jarri dituzte tunelaren sarreran zirkulazioa erregulatzeko. Tunel barruan ere izan da aldaketarik; orain dela gutxi espaloiak egin dituzte tunel barruan, alde banatan.



1937 Gerra garaikoa da irudi hau eta orduko hondamendia islatzen du. Tunel azpian asfaltozko biderik ez zegoen orduan.




2003 Errepidea tunel azpitik igarotzen denez, auto-en abiadura moteltzeko egindako proiektuaren baitan espaloiak eraiki dituzte barruan.



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.




GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA


ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.



HORMA ARMAIRUAK


ATEAK ETA
LEIHOAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

zeramikak **URBIETA** bainuak

PORCELANOSA
banatzaile ofiziala



Erreformak
Gremioen koordinazioa
Iturgintza




Urbieta
Zabalik!



Zeramikak
Hidromasaje kabinak
Bainuak

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

